

OCW

## IKASTEKO MATERIALAK

### ORIENTAZIOA, DIAGNOSIA ETA ESKU HARTZEA HEZKUNTZAN

## 3. GAIA. DIAGNOSIA HEZKUNTZAN: IKASTEKO ZAILTASUNAK

3.1. Pentsatzen eta ikasten ikastea

3.2. Ikasteko baliabide irekiak

3.3. Ikasteko ezgaitasunak edo zailtasunak (*Learning disabilities, LD*)  
Estatu Batuetan

3.4. Ikasteko Zailtasun Espezifikoak (*Specific Learning Disabilities SLD*)  
*Learning Disabilities Association of America* elkartearen arabera

3.5. Berariazko hezkuntza-laguntza premiak dituzten ikasleak (BHLP) Euskadin

3.6. W67 plataforma: Hezkuntza Laguntzako Premia Berezien Aplikazioa  
Euskadin

3.7. Ikasteko zailtasunak goiz hautemateko eta horietan esku hartzeko  
prozedura Euskadin

3.8. Erreferentzia bibliografikoak

## IKASKETA-EMAITZAK

Irakasgai honen amaieran, ikasleak:

1. Pentsatzen eta ikasten ikastearen oinarritzko zehar konpetentzia Heziberri 2020n zein den jakingo du
2. Ikasteko teknikak eta ikasteko dauden zenbait baliabide ireki non dauden jakingo du
3. Ikasteko ezgaitasunei edo zailtasunei buruz Estatu Batuetan eman diren bi definizio ezagutuko ditu
4. Ikasteko zailtasun espezifikoak *Learning Disabilities Association of America* elkartearen arabera zer diren jakingo du
5. Euskadin Berariazko hezkuntza-laguntza premiak dituzten ikasleen sailkapena, laburdurak eta azken urteotako garapena ezagutuko du
6. W67 plataformaren prozedurak ezagutuko ditu
7. Ikasteko zailtasunak goiz hautemateko eta horietan esku hartzeko Euskadin ezartzen ari den prozeduraren zertzeladen berri izango du

### 3.1. Pentsatzen eta ikasten ikastea

Heziberri 2020ren dokumentuen arabera [1, 2], oinarrizko zehar kompetentzietako bat edo kompetentzia orokorretako bat ikasten ikasteko kompetentzia da, hau da, Pentsatzen eta ikasten jakitea. Honek esan nahi du 1) Informazioa ulertzea eta buruz ikastea (ulermenean oinarritutako pentsamendua) 2) Informazioa interpretatzea eta ebaluatzea (pentsamendu kritikoa), 3) Ideiak sortzea eta aukeratzea (pentsamendu sortzailea) eta 4) Baliabide kognitiboak modu estrategikoan erabiltzea, ikasitakoak beste egoera batzuetara mobilizatuz eta transferituz. 1 puntuan, hots, ulermenean oinarritutako pentsamenduan zentratzen bagara, ikasteko teknikak aipatzen dira. Ikasteko teknikak informazioa ulertu eta adierazteko prozedurekin lotura estua dute. Ikasteko teknika guztietan azaltzen dira informazioa konparatzea, sailkapenaren prozedurak erabiltzea, sekuentziatzea, informazioa sintetizatzea edota deskripzioak egitea, kontrastatzea eta eranstea eta teknika hauek oso lagungarriak suertatzen dira ikasteko edo informazioaz oroitzeko. Heziberriren artxiboan ikasteko teknika hauek proposatzen dira: azpimarratzea, glosategiak egitea, ideiak eskema edo kontzeptu mapetan banatzea (*Mindomo* baliabidea proposatzen da baita), laburpenak edota apunteak egitea, mnemotekniak, e.a.

Heziberrik aipatzen dituen teknikak eta beste ikasteko modu batzuk toki askotan aurkitu ditzakegu. Hurrengo taulan bildu ditut online dauden zenbait gune (ikus 1. taula):

1. Taula. Ikasteko teknikak eta aholkuak

NORK ESKAINIA ETA ESTEKA	ZER AURKITU DEZAKEZU?
<p><i>Orientasarek</i> eskaintzen duena <a href="https://labur.eus/pGw65">https://labur.eus/pGw65</a></p>	<p><i>Orientasarek</i> gure esku jartzen ditu zenbait baliabide:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Gipuzkoako Foru Aldundiak oinarrizko ikastaroa: 'Mapa mentalen oinarrizko ikastaroa '</li> </ul> <p>Hemen edukina gazteleraz:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-<i>Aprender a estudiar</i> (Raúl Martínez)</li> <li>-<i>Aprender a aprender</i> (Carlos Dorado)</li> <li>-<i>Aula fácil: técnicas de estudio</i></li> <li>-<i>Entrenamiento de la velocidad lectora</i></li> <li>-<i>Plan de acción tutorial interactivo</i></li> </ul>

1. Taularen jarraipena	
NORK ESKAINIA ETA ESTEKA	ZER AURKITU DEZAKEZU?
<p><i>Aixerrota BHI Getxok</i> eskaintzen dituen baliabideak (<i>Apside</i>-n zintzilik) <a href="https://labur.eus/JOHVb">https://labur.eus/JOHVb</a></p>	<p>G.I.A. E.L.G.E. metodoaren urratsak agertzen dira.</p> <p>Metodo honen bitartez, pauso batzuk ematen dira: Gainbegiratu, irakurri, azpimarratu, eskema, laburpena, gogoratu eta errepasatu</p>
<p><i>Jakindun</i></p> <p><a href="https://www.jakindun.com/">https://www.jakindun.com/</a></p>	<p>DBH-ko ikasleentzat bideratutako ikasteko gaiak bideo formatuan</p>
<p><i>Cedec</i> (Ministerio de Educación y Formación Profesionalen menpe dagoen erakundea)</p> <p><b>GIDA:</b> <a href="https://labur.eus/b7AOz">https://labur.eus/b7AOz</a></p> <p><b>BIDEOAK:</b> <a href="https://labur.eus/dXP05">https://labur.eus/dXP05</a></p>	<p><i>Guía Saber estudiar:</i> Gurasoek ikasleei errendimendu akademikoa handitzen laguntzeko gida bat da. IES "Enrique Díez-Canedo, Badajozeko ikastetxe da eta komunitatearen esperientziatik sortua. Gidak bost atal nagusi ditu, bakoitzean azpi-atal desberdinak daude eta horietako bakoitzak xede espezifiko bat du:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ikastetxeak eta familiak (ikastetxeekin harremanak, arauen kontsentsua, e.a.)</li> <li>2. Nola ikasi (ikasteko gomendioak)</li> <li>3. Zailtasunak eta notak txarrak badira (lehen asteetarako aholkuak)</li> <li>4. Nire semeak/alabak ba al daki ikasten? (ikastearen atal praktikoak: tokia, denbora, e.a.)</li> <li>5. Zergatik ikasi (motibazioaren inguruan)</li> </ol> <p>Gida honek familientzako <b>bideoak</b> ere baditu. Eskuineko estekan daude eta hauek dira izenburuetako batzuk: irakaslearekin harremana izatea, ikasteko ordutegia, e.a.</p>

### 3.2. Ikasteko baliabide irekiak

[3] *DigCompEdu* hezitzaileentzako erreferentzia markoan, 1 paragrafoan esaten denaren arabera, 'gaur egun, irakasleek hezkuntza-baliabide digital andana dute, irakasteko erabil dezaketena. Irakasleek garatu behar duten funtsezko gaitasunetako bat da baliabide andana hori kudeatzea, ikasketa-helburuekin, ikasle taldearekin eta irakasteko metodologiarekin hobekien bat datozen baliabideak identifikatzea, material andana egituratzea, loturak egitea, eta irakasten laguntzeko baliabideak moldatzea, gehitzea eta garatzea'. Jarraian agertzen diren baliabide ireki hauek oso egokiak izan daitezke familien esku jartzeko (ikus 2. taula).

#### 2. Taula. Baliabide irekiak, zer dago non?

NORK ESKAINIA ETA ESTEKA	ZER DA ETA ZER AURKITU DEZAKEZU?
<b>AMARAUNA</b> <a href="https://labur.eus/TrFW4">https://labur.eus/TrFW4</a>	-Web semantiko bat da, baliabideek, pedagogiak eta teknologiak bat egiten duten gunea  -Berritzeguneko aholkularitzek egindako baliabide esanguratsuak eta kalitatezkoak jasotzen dira, bai eta kanpoko beste baliabide batzuk  -Bilatzailan askotariko gaiak aurkitu ditzakezu: Orduak nola ikasi, Ikasten eta pentsatzen ikasteko Lehen Hezkuntzaren bukaerarako konpetentzien errubrika, matematika ikastea jolasaren bitartez, e.a.
<b>Berritzegune G-04 Ordiziak Eusko Jaurlaritzaren eskola 2.0 baliabideak</b> <a href="https://elearning3.hezkuntza.net/013159/course/index.php?categoryid=15">https://elearning3.hezkuntza.net/013159/course/index.php?categoryid=15</a>	-2.0. baliabideak hezkuntza prozesurako fidagarriak diren erramintak dira (blogak, wikiak, <i>podcast</i> -ak, e.a.)  -Berritzegune honetan HH3 urtetik DBH4 arteko ikasteko materialak daude, familiek ezagutu beharrekoak  -Maila guztietarako ikasgaiak daude
<b>EDIA (Cedec)</b> <a href="https://labur.eus/HNRY">https://labur.eus/HNRY</a>	-Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako hezkuntza edukien bankua da  -Curriculumeko erreferentzia diren hezkuntza baliabide irekiak dira  -Metodologia aktiboekin eta gaitasun digitalaren sustapena ikasgelan sustatzeko proposamenak dira
<b>AGREGA2</b> <a href="https://labur.eus/ehx8Y">https://labur.eus/ehx8Y</a>	-Espainiako hezkuntza administrazioetan martxan dagoen plataforma teknologikoa da, elkarren artean konektatutako eskualde-nodoen bidez ( <i>Agrega2</i> hezkuntza objektu digitalen biltegien federazioa)  -Zerbitzari sare honek milaka hezkuntza baliabide biltzen ditu, behar bezala etiketatuta eta paketatuta

### 3.2. Ikasteko ezgaitasunak edo zailtasunak (*Learning disabilities, LD*) Estatu Batuetan

Garrantzitsua da Estatu Batuetan egin diren ikerketak eta eman diren definizioak kontuan hartzea, oihartzuna izan dutelako Espainiako legedian eta ondorioz Euskadin. Horigatik, ibilbide labur bat egingo da jarraian.

Estatu Batuetan, 1960. urteko hamarkadatik gurasoak frustratuta zeuden, eskola publikoetan ezgaitasunak zituzten haurrek ez zutelako hezkuntza-baliabiderik jasotzen. Ezgaitasuneko baldintza hauek adimenekoak edo garapeneko nahasketak izan zitezkeen eta baita ahozko hizkuntzarekin eta/edo idatzizko hizkuntzarekin zerikusia zuten zailtasunak. Testuinguru honetan, Samuel Kirk, *Institute for Research on Exceptional Children* –eko zuzendariak, Chicagon hitzaldi bat eman zuen 1963. urtean, *learning disabilities* hitza lehen aldiz erabili zuelarik. Data/egile hau hartzen dira ikasteko zailtasun kontzeptuaren sorrera bezala [4] Terminoa ulertzeko, [5] hona hemen bere hitzaldian erabili zituen hitzak (ikus 3. taula).

#### 3. Taula. Ikasteko zailtasunak Kirk egilearen arabera

KIRK EGILEAREN HITZAK	EUSKARATUKO HITZAK
<p>"I have used the term 'learning disabilities' to describe a group of children who have disorders in development in language, speech, reading, and associated communication skills needed for social interaction. In this group I do not include children who have sensory handicaps such as blindness or deafness, because we have methods of managing and training the deaf and the blind. I also exclude from this group children who have generalized mental retardation."</p>	<p>Ikasteko ezgaitasunak terminoa erabili dut hizkuntza, hizketa, irakurketa eta elkarrekintza sozialerako beharrezkoak diren garapenean nahasteak dituzten haur talde bat deskribatzeko. Talde honetan ez ditut sartzen itsutasuna edo gorra bezalako urritasun sentzorialak dituzten haurrak, gorrak eta itsuak kudeatzeko eta entrenatzeko metodoak ditugulako. Talde honetatik kanpo uzten ditut adimen atzerapen orokorra duten haurrak ere».</p>

1963. urtean Estatu Batuetan *Association for Children with Learning Disabilities* (ACLD) sortu zuten Kirkek aholkatuta, orain *Learning Disabilities Association of America* (LDA) izenez ezagutzen dena [6]. Elkarte gehiago sortu ziren, eta ikasteko zailtasunak terminoa, hiztegi medikuetan, psikologikoetan eta hezkuntzazkoetan erabiltzen hasi ziren. [7]. Kirkek emaniko hitzaldiaren ondoren, gurasoek diziplina anitzeko talde bat behar zela esan zuten, haur guztien hezkuntza beharrei erantzuna emateko. Ikerketak ugaritzen hasi ziren eta administrazioa ere presionatu egin zuten, ikasteko zailtasunak zituztenei arretea emateko [4, 7].

1975. urtean *Education for All Handicapped Children Act* (EAHCA) lege federala sortu zen, hezkuntza-ezgaitasun egoeran zeuden ikasleentzat doako hezkuntza publikoa eskaintzeko. Zoritxarrez, ez zuten lortu ikasteko zailtasunetarako inklusio-irizpide bat, hau da, ez zuten lortu ikasteko zailtasunak definitzea eta eskusio-irizpide bat erabili zuten. Honela, ikasteko zailtasuna zer ez zen adostu zuten: 9 orr.: 'A learning disability is not due to intellectual disabilities, sensory

acuity or motor impairments, a lack of opportunity to learn, or cultural differences'. Euskaratuta honela litzateke: Ikasteko ezgaitasuna ez da adimenerritasunarengatik, zentzumenen akutasunarengatik\* edo urritasun motorrengatik, ikasteko aukera faltagatik edo kultura desberdintasunengatik (\* *Sensori aquity* –zentzumen akutasuna- hitzaren argitzapena: pertsona zenbateraino gai den tamaina, intentsitate edo iraupen minimoko estimuluak detektatzeko). Ondorioz, oraindik orain, Estatu Batuetan *learning disabilities* terminoa oso aldakorra da estatu batetik bestera [4].

Nazioartean eta gurean ere oso aipatua da *National Joint Committee on Learning Disabilities* [8] komiteak erabili izan duen definizioa. Definizio hau NHBBZ/CREENAK erabili izan du *Orientaciones para dar respuesta al alumnado con necesidades educativas específicas asociadas a DEA en lectura y TEL* argitalpenean [9]. Era berean, Eusko Jaurlaritzaren Creenaren argitalpenean oinarritu da hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleekin eskuhartzea proposatzeko [10]. Jarraian, Estatu Batuetan emaniko bi definizio erakutsiko dira: bata, *National Joint Committee on Learning Disabilities* (NJCLD hemendik aurrera) elkartearena eta bestea, *Learning Disabilities Association of America* (LDA hemendik aurrera), bakoitzaren ezaugarriak ere azaletik aipatuz.

NJCLD 1975. urtean sortu zen (<https://labur.eus/YoR5k>) eta zenbait erakunde biltzen dituen komite bat da. Komite honen kideek, ikasteko zailtasunak dituztenen hezkuntza eta ongizatearen alde egiten dute lan, adibidez, *The American Speech-Language-Hearing Association* (ASHA), *International Dyslexia Association* (IDA), *The Reading Ligue*, *International Literacy Association*, *Learning Disabilities Association of America* (LDA), e.a. NJCLD-k adostu zuen definizioa emango da jarraian. [8] (ikus 4. taula).

4. Taula. NJCLD komitearen ikasteko zailtasunaren definizioa. Ezkerraldean, ingelesezko definizioa ematen da eta eskuinaldean, euskaratutako definizioa

<b>NATIONAL JOINT COMMITTEE ON LEARNING DISABILITIES (NJCLD) KOMITEAREN DEFINIZIOA</b>	<b>EUSKARATUKO DEFINIZIOA</b>
<p>Learning disabilities is a generic term that refers to a heterogeneous group of disorders manifested by significant difficulties in the acquisition and use of listening, speaking, reading, writing, reasoning, or mathematical abilities. These disorders are intrinsic to the individual and presumed to be due to central nervous system dysfunction. Even though a learning disability may occur concomitantly with other handicapping conditions (e.g., sensory impairment, mental retardation, social and emotional disturbance), or environmental influences (e.g., cultural differences, insufficient/inappropriate instruction, psychogenic factors), it is not the direct result of those conditions or influences.</p>	<p>Ikasteko ezintasunak entzumen, hitz egiteko, irakurtzeko, idazteko, arrazoitzeko edo matematikarako gaitasunak eskuratzeko eta erabiltzeko zailtasun nabarmenek adierazten duten nahaste-multzo heterogeneoaren termino generikoa da. Nahaste hauek gizabanakoaren berezkoak dira eta nerbio-sistema zentralaren disfuncio baten ondoriozkoak direla uste da. Nahiz eta ikaskuntza-urritasuna beste baldintza batzuekin batera gerta daitekeen (adibidez, zentzumen-urritasuna, adimenterapena, asaldura soziala eta emozionala) edo ingurumen-eraginekin (adibidez, kultura-desberdintasunak, irakaskuntza nahikoa/desegokia, faktore psikogenoak), ez da baldintza edo eragin horien ondorio zuzena.</p>

NJCLDren barruan dagoen *Learning Disabilities Association of America* elkarteak (LDA) (<https://ldaamerica.org/>) bere definizioa du eta ikusi adibidez zer esaten den bere webgunean duen gida batetan [11] (ikus 5. taula)

5. Taula. LDAren ikasteko zailtasunaren definizioa. Ezkerraldean, ingelesezko definizioa ematen da eta eskuinaldean, euskaratutako definizioa

<b>LEARNING DISABILITIES ASSOCIATION OF AMERICA ELKARTEAREN DEFINIZIOA</b>	<b>EUSKARATUKO HITZAK</b>
<p>Learning Disabilities refer to a number of disorders which may affect the acquisition, organization, retention, understanding or use of verbal or nonverbal information. These disorders affect learning in individuals who otherwise demonstrate at least average abilities essential for thinking and/or reasoning. As such, learning disabilities are distinct from global intellectual deficiency. Learning disabilities result from impairments in one or more processes related to perceiving, thinking, remembering or learning. These include but are not limited to: language processing; phonological processing; visual spatial processing; processing speed; memory and attention; and executive functions (e.g., planning and decision-making).</p>	<p>Ikaskuntza-urritasunak hitzezko edo hitzik gabeko informazioa eskuratzean, antolatzean, atxikitzean, ulertzean edo erabiltzean eragina izan dezaketen hainbat nahasteei dagokie. Nahaste horiek ikaskuntzan eragiten dute, baina ikaskuntza-urritasunak dituztenek batez besteko gaitasunak erakusten dituzte pentsatzeko edo/eta arrazoitzeko oinarrikoak diren trebezetan. Hori dela eta, ikaskuntza-urritasunak bereiztu egiten dira urritasun intelektual orokorretatik. Ikasteko ezintasunak hautematearekin, pentsatzearekin, gogoratzearekin edo ikaskuntzarekin lotutako prozesu batean edo gehiagotan izandako narriaduraren ondorioz sortzen dira. Hauek dira prozesuak, besteak beste: hizkuntza-prozesamendua; prozesamendu fonologikoa; ikusizko prozesaketa espaziala; prozesatzeko abiadura; memoria eta arreta; eta funtzio exekutiboak (adibidez, plangintza eta erabakiak hartzea).</p>

Gainera, zenbait zehaztapen egiten dituzte. **Ikasteko zailtasunak...**

-**Larriak** dira (larritasuna dute) eta ondoko arloren bat edo gehiago eskuratzea eta erabiltzea oztopatu dezakete:

- ahozko hizkuntza (adibidez, entzutea, hitz egitea, ulertzea);
- irakurketa (adibidez, deskodeketa, ezagutza fonetikoa, hitzen ezagutza, ulermena);
- hizkuntza idatzia (adibidez, ortografia, idatzizko adierazpena eta idazteko erraztasuna); eta
- matematika (adibidez, konputazioa, problemak ebaztea, zenbakien zentzua eta matematikako egitateen jarioetasuna, zentzu espaziala eta matematikako kontzeptuen hitzezko bitartekaritza).



-**Bizitza osorako** dira.

-Garunaren funtzionamendua aldatzen duten **faktore genetiko eta/edo neurobiologikoengatik** gertatzen dira. Nahaste hauek ez dira nagusiki entzumen- eta/edo ikusmen-arazoengatik, faktore sozioekonomikoengatik, e.a. nahiz eta faktore horiek erronkak areagotzen dituzten. Batzuetan besteko adimena edo batez bestekoa baino handiagoa duten pertsonen ikasteko ezintasunak izan ditzakete.

-Ustekabeko errendimendu akademiko eskasak egon daitezke ikasturtean zehar edo lorpen ertainak/onak egon daitezke, baina **lorpen maila horiek ezohiko esfortzuarekin eta laguntza maila altuekin mantentzen dira bakarrik.**

-**Hainbat motatako baldintzekin batera egon daitezke**, besteak beste, arreta-, jokabide- eta emozio-nahasteekin, zentzumen-urritasunekin edo beste baldintza mediko batzuekin.

- Gainera, ikasteko zailtasunak dituenak, **beste zailtasun batzuk izan ditzake**, hala nola, antolakuntza-gaitasunetan, pertzepzio sozialetan, elkarrekintza sozialean, e.a.

-Arrakasta lortzeko, ikasteko zailtasunak dituzten pertsonen **identifikazio goiztiarra, ebaluazio espezializatuak eta esku hartze puntualak** behar izaten dituzte etxean, eskolan, komunitatean eta lantokian.

Bere webgunean LDA-k hauek erakusten ditu ikasteko zailtasun bezala [12]: Diskalkulia, disgrafia, dislexia, hitzezkoak ez diren ikasteko ezgaitasunak, ahozko eta idatzizko hizkuntzaren nahasketak eta irakurketaren ulermenaren nahaste espezifikoak. Bestetik, harremandutako nahasketa bezala (*related disorder*) aipatzen dituzte, arretagabezia, dispraxia eta funtzio ejekutiboetan egon daitezkeen eraginkortasun ezak.

#### **3.4. Ikasteko Zailtasun Espezifikoak (*Specific Learning Disabilities SLD*) *Learning Disabilities Association of America* elkartearen arabera**

Ikasteko zailtasunen barruan badaude Ikasteko zailtasun espezifikoak (zenbait dokumentutan euskaraz *Berariazko ikasteko zailtasun* terminoa erabiltzen da, laburdurak IZE edo IBZ direlarik). *Specific learning disability (SLD)* izango litzateke ingelesezko hitza. Jarraian, LDA elkarteak emaniko definizioa erabili da, hauek zer diren jakiteko [13] [<https://www.ncl.org/wp-content/uploads/2017/06/SLD-Conversations.D3.pdf>] (ikus 6. taula)

6. Taula. Ikasteko zailtasun espezifikoen definizioa, LDA elkarteak emanikoa. Ezkerraldean, ingelesezko definizioa dago da eta eskuinaldean, euskaratutako definizioa

<b>SPECIFIC LEARNING DISABILITY (SLD)</b>	<b>EUSKARATUKO HITZAK</b>
<p>Specific learning disability (SLD) is a term used in IDEA. It describes children who have a disability in reading, writing, or math. Using the term SLD is important because it's the term used in IDEA. It needs to be used when identifying a student as eligible for special education services. Other terms may be used to describe a particular area of need such as dyslexia (a type of reading disorder), dyscalculia (a type of math disorder), and dysgraphia (a type of writing disorder). SLD may also co-occur with challenges with skill such as: organization, focus, listening comprehension, social skills, motor skills, or a combination of these</p>	<p>Ikasteko zailtasunaren terminoa (SLD ingelesez, IBZ euskaraz) IDEAn* erabiltzen den terminoa da. Irakurmenean, idazketan edo matematikan ezintasunen bat duten haurrak deskribatzen ditu. SLD terminoa erabiltzea garrantzitsua da, IDEAn erabiltzen den terminoa delako. Ikasle batek hezkuntza bereziko zerbitzuetarako eskubidea duela identifikatzeko erabili behar da. Beste termino batzuk ere erabili daitezke, hala nola dislexia (irakurketa-nahaste mota bat), diskalkulia (matematika-nahaste mota bat) eta disgrafia (idazketaren nahaste mota bat). SLDak beste erronka batzuekin ere egon daitezke, hala nola, antolakuntzan, arretan, entzumenaren ulermenean, trebetasun sozialetan, trebetasun motorretan erronkak daudenean edo hauen konbinazioan.</p> <p>*OHARRA IDEAri buruz:</p> <p><i>Individuals with Disabilities Education Act</i> (IDEA) lege bat da, nazio osoan hezkuntza publiko doakoa eskaintzen die ezgaitasuna duten haurrei eta hezkuntza berezia eta horiei lotutako zerbitzuak bermatzen dizkie (<a href="https://sites.ed.gov/idea/about-idea/">https://sites.ed.gov/idea/about-idea/</a>)</p>

Bestalde, LDA elkarteak, ez zegoen ados ikasteko zailtasun espezifikoen ebaluazioa eta identifikazioa nola erregulatu zen Estatu Batuetan 2006. urtean eta *Paper Zuria* argitaratu zuen 2010. urtean [14]. Hemen: <https://ldaamerica.org/wp-content/uploads/2013/10/LDA-White-Paper-on-IDEA-Evaluation-Criteria-for-SLD.pdf> Paper zurian esaten denez, berariazko ikasteko zailtasunak identifikatu nahi izan direnean, fokua ia ia soilik hezkuntza faktoreetan egon izan da, izaera kognitiboa gutxietsiz eta ondorioz, hainbat ikasle bazterrean utzi izan dira, identifikatu gabe.

Agian *Paper Zuriko* beste konklusio nagusi bat hauxe litzateke: Ebaluazio integralak egin behar dira Berariazko ikasteko zailtasunak identifikatzeko eta esku hartzeak, zailtasun hauetan oinarritutakoak eta indibidualizatuak izan behar dira. Diotenez, identifikaziorako, "hirugarren metodo" bat behar da: ez da nahikoa eskolako errendimenduaren eta ikaslearen trebezien arteko aldea, ez eta esku hartzea egin eta arrakastarik ez izatea (*Response to Intervention*, RTI motako esku hartzeari buruz ari da). Ikaslearen indarguneak eta ahuleziak identifikatu behar dira, prozesu kognitiboak eta neuropsikologikoak ebaluatu eta ondoren esku hartu.

\*[15] Estatu Batuetan ikasteko zailtasunak identifikatzeko 'Esku hartzeari Erantzuna' izeneko ikuspuntua (*Response to Intervention*) proposatu zuen Hezkuntza sailak. 3 maila zituen eredu honek: *Tier1*, *Tier2* eta *Tier3*. Honela, *Tier1* maila, *screening* unibertsala litzateke, ikasle guztiak, urtean 3 aldiz irakurketan, idazketan eta matematiketan ebaluatzea. Ikasle hauek ez badute *Tier1* mailako esku hartzeetan erantzuten, *Tier2* mailan kokatzen dira eta esku hartzeak zehatzagoak dira. 2. maila honetan egonda, esku hartzeei ez badiete erantzuten, *Tier3* mailan kokatzen dira. Azken maila horretan ikasleagoaren % 2tik % 7ra egon ohi da eta hezkuntza bereziko zerbitzuetara bideratzen dira.

### 3.5. Berariazko hezkuntza-laguntza premiak dituzten ikasleak (BHLP) Euskadin

Berariazko hezkuntza-laguntza premiak dituzten ikasleak (BHLP) bitan sailkatzen dira: 1) Batetik, hezkuntza-premia bereziak (HPB) dituzten ikasleak eta 2) bestetik, hezkuntza-laguntza-behar espezifikoak dituzten ikasleak (HLBP) [16]. Hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleak (HPB) LOEren arabera [17], hauek dira (ondorengo LOMCE eta LOMLOEk ez dituzte behar hauek gehiago zehaztu):

Se entiende por alumnado que presenta necesidades educativas especiales, aquel que afronta barreras que limitan su acceso, presencia, participación o aprendizaje, derivadas de discapacidad o de trastornos graves de conducta, de la comunicación y del lenguaje, por un periodo de su escolarización o a lo largo de toda ella, y que requiere determinados apoyos y atenciones educativas específicas para la consecución de los objetivos de aprendizaje adecuados a su desarrollo (52. orr.)

Jarraian ageri dira euskarazko eta gaztelarazko hitzak eta laburdurak (ikus 7. taula)

7. taula. Euskarazko eta gaztelarazko terminoak eta laburdurak

EUSKARAZKO TERMINOA	EUSKARAZKO LABURDURA	GAZTELERAZKO TERMINOA	GAZTELERAZKO LABURDURA
Berriazko hezkuntza-laguntza premiak dituzten ikasleak	BHLP	Alumnado con necesidades específicas de apoyo educativo	NEAE
Hezkuntza Premia Bereziak  edo Hezkuntza-beharrizan bereziak	HPB  HBB	Necesidades educativas especiales	NEE
Hezkuntza-laguntza-behar espezifikoak dituzten ikasleak  edo hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak	HLBP	Alumnado con necesidades específicas de apoyo educativo	NEAE
Ikasteko zailtasun espezifikoak  edo Ikaskuntzaren Nahasmendu Espezifikoak (DSM-5eko izendegian)  Zenbait dokumentutan euskaraz Ikasteko Berriazko Zailtasunak edo Berriazko ikasteko zailtasunak erabiltzen dira sinonimo bezala	IZE edo IBZ	Dificultades específicas de aprendizaje	DEA

[18] Hezkuntza sailaren webgunean ageri den informazioaren eta [10] dokumentuaren arabera, BHLP ikasleek bestelako hezkuntza-arreta bat behar dute, ikasle arruntekin konparatuta ezaugarri hauek dituztelako:

-Hezkuntza-beharrizan bereziak, (HBP) desgaitasunen batetik edo jokabide-nahaste larrietatik eratorritakoak dira (adimen-, entzumen- edo ikusmen-ezgaitasunak, ezgaitasun fisikoak eta espektratu autistaren nahasmenduak, ezgaitasun anitzak, gortasun-itsutasuna, jokabide-arazo larriak),

-Gaitasun intelektual handia

-Hezkuntza-sisteman berandu sartzea

-Baldintza pertsonalak edo eskola-historiakoak (gaixotasuna...)

-Desberdintasun sozialeko egoerak

- Ikasteko zailtasun espezifikoak (mezuak ulertu eta ekoizteko, irakurri eta idazteko, kalkulu aritmetikoak egiteko, arreta jartzeko eta/edo eusteko, oldarkortasuna kontrolatzeko, ikasteko erritmo mantsoagoa dute, hizkuntzako berariazko arazoak dituzte). Beste hitz batzuk erabiliz, Ikaskuntzaren zailtasunen artean daude, dislexia, disgrafia eta diskalkulia eta honela zehazten dira: matematikarako zailtasuna, irakurtzeko zailtasuna edo idatzizko adierazpenerako zailtasuna. [10] dokumentuan ageri dira diagnostikorako zenbait irizpide, gehien identifikatzen dena dislexia dela diote eta orientabideak emateko [9] dokumentua darabilte, Nafarroako Creenaren dokumentua. Kontuan izan LOE-k [17] zer esaten duen:

Alumnado con dificultades específicas de aprendizaje Artículo 79 bis.  
Medidas de escolarización y atención. 1. Corresponde a las Administraciones educativas adoptar las medidas necesarias para identificar al alumnado con dificultades específicas de aprendizaje y valorar de forma temprana sus necesidades (4. sekzioa)

Aipatu beharra dago baita ikasturtearen hasieran, irakasle tutoreak dagokion taldeko ikasle bakoitzaren hasierako ebaluazioa koordinatzen duela, hezkuntza-laguntzarako edo errefortzurako izan ditzakeen premiak hautemateko. Era berean, ebaluazio horren ostean, programazioa taldearen/gelaren egoerara egokituko du [19, 31. orr].

Euskadiko Eskola Kontseiluaren azken txostenean [16] esatenenez, azken urteotan, hezkuntza-premia bereziak (HPB) dituen ikasleria eta HLBP dituzten ikasleria asko hazi da. HPBri dagokionez, ezintasunaren arabera sailkatzen dira eta azken urteotan mota guztiak ugaritu dira. HLBPri dagokionez, diotenez, 2 urtetan % 24,3 baino gehiago hazi dira. 209. orrian adibidez, 2016-2017 ikasturtetik 2018-19 urtera arteko ikasleriaren garapena erakusten da, dituzten hezkuntza-laguntza beharren arabera. Ikasteko zailtasun espezifikoetan, 2016-17 urtean 1.802 ikasle egotetik 2018-19 ikasturtean 2.543 egotera pasatu zen (ikus 8. taula).

8. taula. HPB eta HLBP ikaslegoaren garapena 2016-2019 bitartean  
(Euskadiko Eskola Kontseilutik moldatuta)

HPB eta HLBP ikaslegoaren garapena 2016-2019 bitartean			
	2016-17	2017-18	2018-19
Hizkuntzaren eta komunikazioaren nahasketak	1.983	2.179	2.574
Ikasteko zailtasun espezifikoak (berariazkoak)	1.802	2.097	2.543
Heltzearen geldotasuna	1.531	1.753	2.105
Arreta gabezia eta hiperaktibitatea	1.136	1.129	1.274
Mugako adimena	3.468	3.440	3.796
Gaitasun handiak	647	685	857

[16] txostenaren 210. orrian, Berariazko hezkuntza-laguntza premiak (BHLP) dituzten ikasleen ehunekoak agertzen dira 2018-19 ikasturtean, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, eskola publikoetan eta pribatuan (ikus 9. taula).

9. taula. Berariazko hezkuntza-laguntza premiak 2018-2019 ikasturtean

	Ikaslekoa	Publikoan	Pribatuan
Araba	4.944	%64.1	%35.9
Bizkaia	11.067	%59.4	%40.6
Gipuzkoa	7.401	%56.9	%43.1
Guztira	23.412	%59.6	%40.4

### 3.6. W67 plataforma: Hezkuntza Laguntzako Premia Berezien Aplikazioa, Euskadin

Egun Euskadin W67, Hezkuntza Laguntzako Premia Berezien Aplikazioan biltzen dira Berariazko hezkuntza-laguntza premiak dituzten ikasleen (BHLP) txostenak, hau da, heziketa premia bereziak (HBP) dituztenen txostenak eta hezkuntza-

laguntza-behar espezifikoak dituzten ikasleen txostenak (HLBP), hezkuntza sailaren 2020ko uztailaren 10eko ebazpenaren ondorioz. Aplikazioak ikasleei buruzko informazioa biltzen du eta eskola inklusiboaren barruan antolatzeko baliagarria da [20, 21, 22]. Erabakian esaten denez [20], aniztasunaren arreta arautzen duen araudia eguneratzen ari dira eta ikastetxeetarako baliabideak berrikusten ari dira. Gainera, premia hartu beharreko neurri batzuk daude W67 aplikazioan. Hona hemen aplikazioari egin zaizkion zehaztapen batzuk:

-Aplikazioa HPB izatetik HLPB izatera pasatu da

-Aplikazio horrek bi erregistro ditu, bakoitzak bere prozedura duena:

1) Erregistro bat:

-Noiz hasten da? Berritzeguneko Hezkuntza Premia Berezien (HPB) aholkularitzari balorazio psikopedagogikoa egiteko eskaerarekin.

-Zelakoa da prozesu hau? Ezohikoa da eta ikasleen aniztasunari erantzuteko ohikoak diren neurri guztiak nahikoak ez direnean hasten da.

2) Beste erregistroa: Ikastetxearen erabilera-eta erantzukizun-prozedura du.

-Zein txosten sartzten dira? Ikaskuntza zailtasun-espezifikoak eta adimen-gaitasun handien diagnostikoa duten ikasleen txostenak.

-Zein dira zailtasun-espezifikoak? Irakurketaren eta idazketaren ikaskuntzarekin loturikoak, kalkuluaren ikaskuntzari loturikoak, hizkuntzaren berariazko nahasmenduari loturikoak eta arreta-defizitaren ondoriozko nahasmendua - hiperaktibitatearekin edo gabe- dira.

-Nortzuk bete behar dute? Irakasle aholkulariek edo orientatzaileek.

-Zelako txostenak dira? Ebaluazio psikopedagogikotik egindakoak dira, ikastetxeko profesionalek Berritzeguneko HPBko aholkularitzarekin egindakoak eta baita familiek egindako diagnostikoak (profesional klinikoek, neuropediatria zerbitzukoek edo Haur Psikiatriako Unitateek egindakoak alegia).

-Erregistratu ahal izateko zer behar du ikastetxeak? Aitaren/amaren edo legezko tutorearen baimen-agiria; ondoren aplikaziora igo behar da.

-Zer egin behar dute tutorek? Identifikatutako ikaslearen Jarduketa Plan Pertsonalizatua (JPP) bete.

-Zertarako bete behar da JPP? Ikasleen beharrei erantzuteko.

- Zer idatzi behar da JPPn? Aplikatuko diren ohiko neurriak.

- Tutoreek noren laguntza izango dute JPP idazteko? Berritzeguneko etapako aholkularitzaren laguntza

- Zenbatero ebaluatzen da JPP eta nork jaso behar du informazioa? Hiru hilabeteen behin ebaluatzen da eta familiek edo legezko tutoreek informazioa jaso beharko dute.

### 3.7. Ikasteko zailtasunak goiz hautemateko eta horietan esku hartzeko prozedura Euskadin

[23,24] Hezkuntza Sailak Eskola inklusiboa garatzeko 2019-2022ko esparru-planaren helburua da, inklusiorako esku hartze prozesuak nabarmen hobetzen dituzten alderdietan eragitea. Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak 2021-2022 ikasturtea zehaztutakoaren arabera, 3. ardatz estrategikoan, 3.2. puntuko berariazko helburua hau da: Ikaskuntza-zailtasunak eta Oinarrizko Hezkuntzan agertu ohi diren zailtasunak goiz hautemateko eta horietan esku hartzeko prozesuak garatzea.

[24] informazioaren arabera, 2021-2022 ikasturtearen hasieran argitaratuko dira "Ikasteko zailtasunak goiz hautemateko eta horietan esku hartzeko prozedura" hedatzeko eta garatzeko jarraibideak. Era berean, protokolo horren hasierako fase pilotua jartzen da martxan hainbat ikastetxetan. Gainera, ikasteko zailtasun bereziei (IZB) eta arreta faltaren nahaste eta hiperaktibitatearen (AFNH) inguruko zenbait prestakuntza-modulu antolatu dira irakasleentzat, gogoeta metodologikoekin bat. Asmoa da prozedura 2022-2023 ikasturtean modu orokortuan martxan jartzea. Protokoloari buruzko informazioa jasoko dute Berritzeguneetako aholkulariek ikasturtean zehar. Azken batetan, helburua da ikasteko zailtasunak eta AFNH izan ditzaketen ikasleak goiz hautemateko, identifikatzeko eta esku hartzeko prozedura bat ezartzea, bai eta irakasleei prestakuntza ematea.

Helburua lortzeko, ikastetxeetan garatzen ari dira detekzio prozesurako protokoloak eta baita protokoloak erabili ahal izateko prestakuntza-moduluak.

### 3.8. Erreferentzia bibliografikoak

[1] EUSKO JAURLARITZA. Heziberri 2020. Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa [online]. [Kontsulta: 2022-03-06]. Eskuragarri: [https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn\\_doc\\_sist\\_educativo/eu\\_def/adjuntos/000009e\\_Pub\\_EJ\\_heziberri\\_2020\\_e.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_sist_educativo/eu_def/adjuntos/000009e_Pub_EJ_heziberri_2020_e.pdf)

[2] GARAGORRI, X, GARTZIA, J.S., MUJIKA, X. ETA OLAZIREGI, I. Oinarrizko zehar-kompetentziak eskuratzeko prozeduren eta jarreraren artxiboa. [online]. [Kontsulta: 2022-03-06]. Eskuragarri: <https://redined.educacion.gob.es/xmlui/handle/11162/218065>

[3] REDECKER, C. ETA PUNIE, Y. Marco europeo para la competencia digital de los educadores. DigCompEdu. Intef eta Fundación Universia. [online]. [Kontsulta: 2022-03-06]. Eskuragarri: <https://sede.educacion.gob.es/publiventa/marco-europeo-para-la-competencia-digital-de-los-educadores-digcompedu/competencia-digital/24685>



- [4] BERNINGER, V. ETA WOLF, B. *Dyslexia, dysgraphia, owl Id, and dyscalculia: lessons from science and teaching* (2.ed.). Paul H. Brookes Publishing. (2016).
- [5] ILLINOIS DISTRIBUTED MUSEUM. [online]. [Kontsulta: 2022-03-06].  
Eskuragarri:  
[https://distributedmuseum.illinois.edu/exhibit/samuel\\_kirk/](https://distributedmuseum.illinois.edu/exhibit/samuel_kirk/)
- [6] LEARNING DISABILITIES ASSOCIATION OF AMERICA. [Kontsulta: 2022-03-06]. Eskuragarri: <https://ldaamerica.org/>
- [7] MORA, J. ETA AGUILERA, A. (2000). Dificultades de aprendizaje y necesidades educativas especiales. In J. Mora y A. Aguilera (Koord.) *Atención a la diversidad en educación: Dificultades en el aprendizaje del lenguaje, de las matemáticas y en la socialización*. Sevilla: Kronos, 13-44.
- [8] NJCLD. [online]. Learning disabilities: Issues on definition. [Kontsulta: 2022-03-06]. Eskuragarri: <https://njcld.files.wordpress.com/2018/10/learning-disabilities-issues-on-definition-1990.pdf>
- [9] CREENA. Orientaciones para dar respuesta al alumnado con necesidades educativas específicas asociadas a DEA en lectura y TEL. [online]. [Kontsulta: 2022-03-06]. Eskuragarri:  
[https://pub.flowpaper.com/docs/http://creena.educacion.navarra.es/web/protocolos/wp-content/uploads/sites/5/2017/10/GUIA\\_DA.pdf](https://pub.flowpaper.com/docs/http://creena.educacion.navarra.es/web/protocolos/wp-content/uploads/sites/5/2017/10/GUIA_DA.pdf)
- [10] EUSKO JAURLARITZA. Proposamen inklusiboak. Hezkuntza-laguntzako berriazko premiak dituzten ikasleekin esku hartzea (HLBP). [online]. [Kontsulta: 2022-03-06]. Eskuragarri:  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn\\_doc\\_esc\\_inclusiva/eu\\_def/adjuntos/eskola-inklusihoa/Propuestas\\_inclusivas\\_ZUZENDUA\\_e.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/eu_def/adjuntos/eskola-inklusihoa/Propuestas_inclusivas_ZUZENDUA_e.pdf)
- [11] LEARNING DISABILITIES ASSOCIATION OF AMERICA. Core Principles for the Identification and Support of Individuals with Learning Disabilities. [online]. [Kontsulta: 2022-03-06]. Eskuragarri: <https://ldaamerica.org/wp-content/uploads/2021/04/LDA-WhatAreLDs-CP-10102018.docx.pdf>
- [12] LEARNING DISABILITIES ASSOCIATION OF AMERICA. Types of learning disabilities. [online]. [Kontsulta: 2022-03-06]. Eskuragarri:  
<https://ldaamerica.org/types-of-learning-disabilities/>
- [13] NATIONAL CENTER FOR LEARNING DISABILITIES. Questions Parents and Educators Can Ask to Start Conversations About Using Terms Like Learning Disabilities, Dyslexia, Dyscalculia, and Dysgraphia. [online]. [Kontsulta: 2022-03-06]. Eskuragarri: <https://www.ncl.org/wp-content/uploads/2017/06/SLD-Conversations.D3.pdf> (ikus 6. taula)
- [14]. LEARNING DISABILITIES ASSOCIATION OF AMERICA. The Learning Disabilities Association of America's White Paper on Evaluation, Identification, and Eligibility Criteria for Students with Specific Learning Disabilities. [online]. [Kontsulta: 2022-03-06]. Eskuragarri: <https://ldaamerica.org/wp-content/uploads/2013/10/LDA-White-Paper-on-IDEA-Evaluation-Criteria-for-SLD.pdf>

- [15] IBARRA, I. ATUTXA, U. ETA IRUSKIETA, M. Idazteko zailtasunak detektatzeko eta esku hartzeko proposamena Lehen Hezkuntzan. IKASTORRATZA. e-Revista de Didáctica, 27, 1-29. 2021. DOI: 10.37261/27\_alea/1 h
- [16] EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUA. Euskadiko hezkuntza sistemaren egoerari buruzko txostena. 2017-18.2018-19. [online]. [Kontsulta: 2022-03-07]. Eskuragarri: [https://consejoescolardeeeuskadi.hezkuntza.net/documents/17937/6345352/17-19+TXOSTENA+%28definitivo%29\\_eusk+CON+LINKS.pdf/a75cdb6a-1fec-b934-6935-b091d337b116](https://consejoescolardeeeuskadi.hezkuntza.net/documents/17937/6345352/17-19+TXOSTENA+%28definitivo%29_eusk+CON+LINKS.pdf/a75cdb6a-1fec-b934-6935-b091d337b116)
- [17] 2/2006, maiatzaren 3ko Hezkuntzaren Lege Organikoa. LOE. [online]. [Kontsulta: 2022-03-06]. Eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/pdf/2006/BOE-A-2006-7899-consolidado.pdf>
- [18] HEZKUNTZA SAILA. [online]. [Kontsulta: 2022-03-06]. Eskuragarri: [https://www.euskadi.eus/berariazko-hezkuntza-laguntza-premiak\\_eu/web01-a3hinklu/eu/](https://www.euskadi.eus/berariazko-hezkuntza-laguntza-premiak_eu/web01-a3hinklu/eu/)
- [19] EUSKO JAURLARITZA. Haur eta Lehen Hezkuntza. 2020-2021 ikasturterako Hezkuntza sailburuordearen ebazpena. [online]. [Kontsulta: 2022-03-06]. Eskuragarri: [https://www.ehige.eus/wp-content/uploads/2020/06/haur\\_eta\\_lehen\\_hezkuntza\\_2020\\_2021\\_ebazpena\\_e.pdf](https://www.ehige.eus/wp-content/uploads/2020/06/haur_eta_lehen_hezkuntza_2020_2021_ebazpena_e.pdf)
- <https://consejoescolardeeeuskadi.hezkuntza.net/documents/17937/6345352/INFORME+CEE+17-19%28definitivo%29+CON+LINKS.pdf/bd7b02f4-1578-f1fa-bfd2-e2d391227927>
- [20] EUSKO JAURLARITZA. Ebazpena, 2020ko uztailaren 10ekoa. [online]. [Kontsulta: 2022-03-06]. Eskuragarri: [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn\\_edu\\_inc\\_neapoyoeducativo/eu\\_def/adjuntos/NEE\\_Resolucion\\_recogida\\_organizacion\\_informacion\\_alumnado\\_10\\_julio\\_2020\\_e.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn_edu_inc_neapoyoeducativo/eu_def/adjuntos/NEE_Resolucion_recogida_organizacion_informacion_alumnado_10_julio_2020_e.pdf)
- [21] EUSKO JAURLARITZA. W67 aplikazioaren ikastetxearen eskuliburuaren jarraibide osagarriak. [online]. [Kontsulta: 2022-03-06]. Eskuragarri: <https://drive.google.com/file/d/1iTPbI-3vkAm8D1XbMVllvwGvTKXikdpO/view>
- [22] ORIENTASARE. [online]. [Kontsulta: 2022-03-06]. Eskuragarri: <https://sites.google.com/site/orientasare/ebaluazio-psikopedagogikoa>
- [23] Eskola inklusiboa garatzeko esparru-plana 2019-2022an: [https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn\\_doc\\_esc\\_inclusiva/eu\\_def/adjuntos/eskola-inklusihoa/Plan\\_Marco\\_Escuela\\_Inclusiva\\_2019\\_2022\\_e.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/eu_def/adjuntos/eskola-inklusihoa/Plan_Marco_Escuela_Inclusiva_2019_2022_e.pdf)
- [24] BERRIGASTEIZ [https://www.berrigasteiz.com/site\\_kalitatea/PR12\\_Planifikazioa/6-Dokumentazioa/DCE1202e\\_bg\\_orientabideak\\_e.pdf](https://www.berrigasteiz.com/site_kalitatea/PR12_Planifikazioa/6-Dokumentazioa/DCE1202e_bg_orientabideak_e.pdf)